

PRESTAKUNTZA ARLOA:	MODERNIZAZIOA/ BERRIKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

## TALLER PRÁCTICO: LA REDUCCIÓN DE LAS CARGAS ADMINISTRATIVAS DESDE UNA PERSPECTIVA DE GENERACIÓN DE VALOR Y TRABAJO EN EQUIPO

KODEA

### INFORMAZIO OROKORRA

<b>DATAK</b>	Maiatzaren 22, 23 eta 24an	<b>IKASGELA/ TOKIA</b>	Bilbao. IVAPeko egoitza (Errekalde Zumarkalea, 18)
<b>IRAUPENA</b>	15 ordu	<b>ORDUTEGIA</b>	09:00-14:00
<b>MATRIKULA EPEA</b>	Apirilaren 13a	<b>ONIRITZI EPEA</b>	--
<b>IKASLE KOPURUA</b>	20 pertsona	<b>HARTZAILEAK</b>	Toki-erakundeetako funtzionarioak
<b>HAUTATZE IRIZPIDEAK</b>	--	<b>LEHENTASUNA</b>	Altua
<b>IRAKASLEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Fermin Cerezo. Catarrojako Udala</li> <li>Remedios Perez. Catarrojako Udala</li> </ul>	<b>MATERIALA</b>	Ikastaroari dagokion materiala eskuragarri izango da
<b>DISEINUA</b>	EUDEL-FORUAK-IVAP	<b>AZPIEGITURA</b>	Eramangarria, proiektorea, arbela

### ZER LORTU NAHI DA

<b>HELBURU OROKORRAK</b>	<p>Udaletako kudeatzaileekin Zerbitzu Direktiba nola aplika daitekeen eta toki-erakundeetan administrazio-kargak nola murriztu daitezkeen lantzea, gauzak hobeto egitearren eta gizartean dirua aurreztearren.</p> <p>Udaletako kudeatzaileei kudeaketa-prozesuak eta kudeaketa-prozedurak nola hobetu erakustea –ez baita erraza-, herritarrak/ erabiltzaileak gusturago egon daitezzen.</p>
<b>HELBURU ZEHATZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiru gauza hauek jakitea: administrazio-kargak nola identifikatu; nola neurtu ekonomian zein eragin duten; eta, batez ere, nola murriztu edo ezabatu, dirua aurreztearren.</li> <li>Udaleko tramiteetan, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurretiazko komunikazioak nola eta non aplikatu behar diren zehatz-mehatz jakitea.</li> <li>Administrazio elektronikoa zabaltzen ari dela-eta, hartaz nola baliatu gaitzkeen administrazio-kargak murrizteko.</li> <li>Beste udal batean administrazio-kargak nola murriztu dituzten ikustea. Benetako kasu bat: PICAS plana, Catarrojan.</li> <li>Tresna erraz bat eskuratzea, administrazio-kargak murrizteko politika taxutzeko eta araudia hobetzeko, baina talde-lanean oinarrituz.</li> </ul>
<b>GAITASUNAK</b>	<p>Prestakuntza ekintza amaitzean ikaslea gai izango da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Nork bere udal-erakundeetan, zerbitzuetarako eta administrazio-kargak murrizteko direktiba aplikatzeko proiektuetan aitzindari izatea, Europarako jarria dagoen helburu estrategikoa betetzen laguntzearen: 2012rako, administrazio-kargak %30 murriztea.</li> <li>Identifikatzea ea administrazioaren arauak eta prozedurak gizartean zein kargak eragiten dituzten.</li> <li>Erantzukizunpeko adierazpenetan eta aurretiazko komunikazioetan bada administrazio-kargak murrizteko hainbat mekanismo. Nagusienak aplikatzea.</li> <li>Helburua lortzeko, administrazio elektronikoen jarraibideak aplikatzea.</li> <li>Hobekuntza horiek ekonomian zer-nolako eragina duten baloratzea.</li> </ul>

PRESTAKUNTZA ARLOA:	MODERNIZAZIOA/ BERRIKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

## TALLER PRÁCTICO: LA REDUCCIÓN DE LAS CARGAS ADMINISTRATIVAS DESDE UNA PERSPECTIVA DE GENERACIÓN DE VALOR Y TRABAJO EN EQUIPO

### PROGRAMA ETA EBALUAKETA

#### METODOLOGIA

Lantegia amaitzen denerako, ikasleek garbi-garbi jakin behar dute administrazio-kargak nola identifikatu eta, gero, nola murriztu, eta, horretarako, saio interaktiboak erabiltzea da onena.

1. SARRERA
  - 1.1 Catarrojan egin duten kudeaketa: testuingurua.
  - 1.2 Zerbitzu-direktiba, transposizio-araudia eta administrazioa sinpletzeko beste arau batzuk.
2. ADMINISTRAZIO-KARGAK NEURTZEKO ETA MURRIZTEKO METODO ERRAZTUA.
  - 2.1 Bada sistema bat, herri-administrazio guztiek erabil dezaketena. Zein?
    - 2.1.1 Aurrekariak eta testuingurua: kontzeptuak eta kostu estandarren eredua (SCM)
    - 2.1.2 Administrazio-kargak identifikatzea.
    - 2.1.3 Administrazio-kargak gutxitzea.
    - 2.1.4 Hobekuntzak neurtzea eta ebaluatzea.
    - 2.1.5 Ariketa praktikoak
  - 2.2 Neurketa-taula aplikatzeko irizpideak
  - 2.3 Administrazio-karga arruntenak. Adibideak.
3. CATARROJAKO GIZARTEAN LEHIAKORRAGOAK IZATEKO ETA GEHIAGO AURREZTEKO PLANA (PICAS PLANA)
  - 3.1 Helburu estrategikoak.
  - 3.2 Jardun-ildoak.
    - 3.2.1 1. I. Administrazio-tramiteen inguruko kargak ezabatzea. Jardun-modu bizkorrak eta tramite guztietan murrizteko orokorrak aplikatzea. Alferrik dagoena, kendu.
    - 3.2.2 2. I. Herritarren eta enpresen artean, erantzukizunpeko adierazpena eta aurretiazko komunikazioa aplikatzea.
      - 3.2.2.1 Estatuko eta autonomia-erkidegoetako arauak.
      - 3.2.2.2 Araubide juridikoa.
      - 3.2.2.3 Azter ditzagun aurretiazko komunikazioa behar duten tokiko tramiteak.
      - 3.2.2.4 Azter ditzagun erantzukizunpeko adierazpena behar duten tokiko tramiteak.
    - 3.2.3 3. I. Administrazio-kargen murrizketa agintzeko eta bermatzeko arauak. Kudea dezagun kulturaren aldaketa.
      - 3.2.3.1 Administrazio-kargen murrizketa arautzen duen ordenantza orokorra.
      - 3.2.3.2 Hirigintzako jarduketak arautzeko ordenantza.
      - 3.2.3.3 Ariketa praktikoak
    - 3.2.4 4. I. Administrazio elektronikoa eta elkarreragingarritasuna bultzatzea. Beste administrazio batzuekiko harreman elektronikoak.
    - 3.2.5 5. I. Proiektuaren zuzendaritza estrategikoa eta operatiboa: Lidergotza eta komunikazioa. Antolaketaren eta kulturaren aldaketa kudeatuz. Planaren exekuzioaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluaketa. Prozesuak lantzen dituzten taldeen bitartez zabaltzea.
  - 3.3 Eraginaren ebaluaketa eta murrizketaren balorazio ekonomikoa. Lortutako eragina ebaluatu, eta Europari jakinarazi.

#### PROGRAMA

PRESTAKUNTZA ARLOA:	MODERNIZAZIOA/ BERRIKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	GAZTELANIA

## TALLER PRÁCTICO: LA REDUCCIÓN DE LAS CARGAS ADMINISTRATIVAS DESDE UNA PERSPECTIVA DE GENERACIÓN DE VALOR Y TRABAJO EN EQUIPO

### EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Honela egingo da ebaluaketa:**
  - 4-6 laguneko taldeka, ariketa praktikoa bat (ordubete). Azken notaren %40.
  - Azken testa. 20 galdera (30 minutu). Azken notaren %40.
  - Prestakuntza-saioretan parte hartu izana eta iritzia eman izana: azken notaren %20.
  - Ikastaroa gainditzeko, 10etik 6 atera behar da.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazioa inkesta

Bete beharreko baldintzak:

### ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

### PREZIOA

132€ Agindua, 2007ko uztailaren 18koa, Ogasun eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zerbitzuek betetzen dituzten jardueren prezio publikoak finkatzen dutena. (EHAA – 2007ko irailaren 5koa; 171zk.)